

Txomin Iturbe

El Diario Vasco, 1987-03-08: 73.

Badira idazlearentzat kezkarri gertatzen diren uneak.

Hau da bat.

Txomin Iturberen heriotza dela eta, sortu den giroan pentsatzen dena esateko kenkan jarri nau. Aurretik Monzon, Santi Brouard eta "Argala"z idazteko izan nuen berberan. Nire lekutasun politikoa eta ideologikoa argi daudela uste dut; kazetari eta idazle bezala idatzitakotan maiz erretratatu bait naiz, egiari barrutik zor diodana kontzientziak agintzen didan bezala emanaz.

Ez da beti erraza izan.

Nire gogoz alderdiarekin loturak izan ditut beti, gaztedanik: lehen, eta berrogei urtez, EAJ/PNV-rekin, eta oraintsu, ezinbestean (eta hau ere kontzientziaz erabakia) EA-rekin. Eta, badakigu, honetako loturetan *konsigna* kontuan edukitzeko dela.

Orain Txomin Iturberen heriotzak sorrarazi duen gatazka politiko honi begira jarri naiz. Eta nire analisia, esan behar dutanaren aurrean, hauxe izan da: Txomin, ETA-ko buru zela ezagutu nuen, eta exilioko Eusko-Jaurlaritzako kontseilari lanetan nembilela, hain zuzen; neu ez naiz inoiz ETA-koa izan, eta 1973-1978eko aldi hartan ETA-ko mutilak egindakoaren alde banengoen, gaur oso kritikoki begiratzen diet geroztik egindako ekintza askori. 2. Txomin eta lehen aipatutakoek sentitu nituen antzera sentitzen naiz abertzale goitik behera, eta niretzat, hainbeste urtetan Euskadiri zor zaion askatasunaren alde bizia eman dutenengatik sentitzen dudan mirespena agertu nahi dut orain ere. Txominen heriotz orduan; oraindik bizi den Peixoto lagunagatik sentitzen dudan bezala.

Hauek baitira neuk ezagutzen ditudanak.

Euskadirentzat urte beltzak ziren haietan abertzaletasunean anai sentitu gara, eta niretzat sentipen sakon hura ez du ezerk itoko.

Jokabide bakoitza bere garaian.

Aberriari egindako zerbitzuak ahaztu ezinak dira edozein kasutan, eta orduko lagunei heriotzako ordua heltzen zaienean ezin diegu nik uste, azken epaiketa arin batetan gizonaren oinarri zuzen hura ukatu, ez ahaztu ere. Batez ere oinarri emankor eta eder honen geroko aldaketak, eta jokabide okerrak ere, abertzale hauen baitan bakarrik egon ez direlako; aitzitik, gehienbat Espainiako agintearen itsukeria eta poliziakeri baldarrak eta askotan kriminalak, jokabide honetan zerikusi haundia dutela uste dutalako. Eta neuk gaur ez dut, azken epaiketa erraz batetan, herri iritzia bi zati egiten ari diren une honetan, nire burua gure betiko arerioaren zati ustelean ikusi nahi.

Hau esaten dit nire kontzientziak.

Ajola gutxi konsignak.